



EBAZPENA, 2019KO EKAINAREN 17KOA, LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA. EBAZPEN HONEN BIDEZ 2019-2020 IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPEN-PROZESUA DEITZEN DA.

Ikasturte-hasierako esleipena planifikazio-eta langileen segidako jarduera batzuen azken urratsa da, eta horren helburu nagusia hauxe da: hasteko dagoen ikasturtearen matrikulari egokitutako hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren irakas-lanpostuak zehaztea, eta ikastetxeen zereginak aurrera eramateko irakasle nahiko eta egokiaz hornitzea.

Esleipen-prozesua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak arautu zuen, agindu bi hauen bidez: 2012ko ekainaren 6koa eta 2011ko uztailaren 15koa. Lehenengoa, behin betiko destinorik ez duten edo betetzen ez duten karrerako irakasle funtzionarioei eta lan legepeko irakasle finkoei dagokie. Bigarrena, ordea, irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko prozesuetako praktika-aldia egin behar duten pertsoneri, eta irakasleen ordezkogaien zerrendako kideei.

Halaber, esleitzeko prozesuaren premisetako bat da Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasleen aldi baterako premiak betetzeko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartu zuena. Izangaien zerrendak espezialitateen arabera eta mailetan sailkatuak eratzen dira eta, ikasturtearen hasierako prozeduraren ondorioetarako, taldeka antolatzen dira.

Agindu horien arabera, prozesua urtero irekiko da Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez; bertan zehaztuko da egutegia, eta ekainaren bigarren hamabostaldian jarriko da jendaurrean Hezkuntza Sailaren web-orrian.

Hori dela eta, hau



EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Prozesuaren deialdia

2019-2020 ikasturte-hasierako esleipen-prozesua deitzen da Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan irakasle-talde hauentzat:

- a) Hezkuntza Sailaren mendeko karrerako irakasle funtzionarioak edo lan-legepeko irakasle finkoak, behin betiko destinorik ez dutenean edo 2019-2020 ikasturtean betetzen ez dutenean.
- b) Hezkuntza Sailak irakasleen kidegoetan sartzeko edo kidego horietara heltzeko deitutako prozesuetako praktikaldia egin behar duten lagunentzat.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkogaien zerrendako lagunentzat.

Bigarrena.- Egutegia

Ebazpen honen A, B, C, D eta E eranskinetan jasotzen da zein egunetan eta orduetan eramango den aurrera esleipen-prozesua irakasle-talde bakoitzean.

A eranskina: Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioak
 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan dauden lan-legepeko irakasle finkoak

B eranskina: Jarraian agertzen diren kidegoetako karrerako funtzionarioak:

Bigarren Hezkuntzako Katedradunak
 Bigarren Hezkuntzako Irakasleak
 Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoak
 Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunak
 Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleak
 Musika eta Arte Eszenikoko Katedradunak
 Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleak
 Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradunak
 Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleak
 Arte Plastiko eta Diseinuko Tailerreko Maisu Maistrak

C eranskina: Irakaskuntza Ertainen Institutu Teknikoetako irakasleen kidegoko karrerako funtzionarioak.
 Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez dauden lan-legepeko irakasle finkoak.

D eranskina: Praktika-aldia egin behar duten lagunak (EPE).

E eranskina: Irakasleen ordezkogaien zerrendako kideak.



Hirugarrena.- Eskaerak betetzeko berariaz prestatutako lekuak

Hezkuntza Sailak hainbat ordenagailu jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, bertan eskariak bete ditzaten. Ordenagailuok jarraian aipatzen diren lekuetan daude:

ARABA

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza San Prudencio, 18 Vitoria-Gasteiz

GIPUZKOA

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza Andia, 13 Donostia

BIZKAIA

Hezkuntza Lurralde Ordezkaritza Kale Nagusia, 85 Bilbao

Zerbitzu hau hurrengo egunetan eta orduetan zabalik egongo da:

	Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia
Uztailaren 2an,3an	09:00etatik 14:00etara
Abuztuaren 9an, 19an eta 20ean	09:00etatik 14:00etara

Laugarrena.- Ikastetxeen zerrenda ordenatua

Eskaera orokorrak egiteko eta nahitaezko eskaerak sortzeko, Ebazpen honen F eranskinak jasotzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxeen zerrenda ordenatua, beti ere 2011ko uztailaren 15eko eta 2012ko ekainaren 6ko Aginduetan ezarritako irizpideak aplikatuz.

Bosgarrena.- Karrerako irakasle funtzionarioen edo lan legepeko irakasle finkoen espezialitateak

Prozedura honetarako, espezialitateak G eranskinean ezarritakoak dira.

Seigarrena.- Ordezko gaien taldeak eta espezialitateak

Prozedura honetarako, espezialitate bakoitza zortzi talde generiko hauetako baten barruan dago, G eranskinean ezarritakoari jarraituz:

1. taldea. Maisu-maistrak.
2. taldea. Bigarren Hezkuntza.
3. taldea. Lanbide Heziketako irakasle teknikoak.
4. taldea. Hizkuntza Eskola Ofizialak.



6. taldea. Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak.
7. taldea. Musika-irakaskuntzak.
8. taldea. Arte Dramatikoaren goi-mailako irakaskuntza artistikoak.
9. taldea. Dantzaren goi-mailako irakaskuntza artistikoak.

ERREKURTSOAK

Administrazio bidea amaitzen ez duen ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 17a.

JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA